

## GOBERNU BATZARRA

2017 07 17

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko uztailaren hamazazpian, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b>	
<b>Nerea Letamendia Belloso</b>	
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	
<b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	
<b>Beh. Beh. Idazkaria:</b>	
<b>Karmele Contreras Goikoetxea</b>	
<b>Kontuhartzaitza:</b>	
<b>Ainhoa Molinos Zubiaurre</b>	
	1.- Aurreko akta onartzea.
	2.- CITeko hitzarmena eta aurrekontua 2017.
	3.-Diru laguntza 2017- Banaiz Bagara Elkartearekin hitzarmena- Euskara Plus proiektua.
	4.-Iurreamendi Egoitzak aurkeztutako 9/2017 zka.duen faktura zerrenda.
	5.-“Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua”n jasotako obren 3. ziurtagiria (V-17/0529 eta V-17/0530 faktura).
	6.-40/2017 zenbakia duen faktura-zerrenda.

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko uztailaren 10ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- CITeko hitzarmena eta aurrekontua 2017.**

Bi mila hamazazpiko maiatzaren 10ean, Kultura, Festak eta Gazteria Batzordea bildu zen CIT-ekiko 2017rako hitzarmen proposamena aztertzeko, besteak beste, eta proposamen hori onartzearen aldeko diktamina jaulki dute.

Diru-kopuru osoa, 106.000,00€ alegia.

Gauzak horrela eta Kultura, Festak eta Gazteria departamentu buruak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Onartzea CITERi 106.000,00€ko diru laguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Aipatutako dirulaguntza emateko hitzarmena onartzea, Alkateari ahalmena emanez dokumentua sinatzeko.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea CITERi, Kontuhartzaitzari eta Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari.

### **3.- Diru laguntza 2017- Banaiz Bagara Elkartearekin hitzarmena- Euskara Plus proiektua.**

Banaiz Bagara Elkartea 2009an sortu zen, gure gizartean jatorri ezberdinetako pertsonen artean euskaraz bizitzeko aukera gehiago sortzeko pertsona gehiagorentzat. Azken urte hauetan hainbat eta hainbat herritan egin du lan, kultura, kirola, musika, elkar ezagutza eta lan mundurako gaitasunen hobekuntza landuz.

2015 urtetik aurrera, bere jarduera nagusia lan munduan euskara erabiltzera bideratuta dago. Horretarako, formatu desberdinak sortu ditu: GUK ere Euskaraz Lanean, Euskara Moduluak eta, orain, Euskara PLUS programa.

Euskara Plus programa bereziki etorkinei zuzendua dago, baina ez soilik. Euskara lanerako tresna gisa landu eta hobetu nahi duen orok parte har dezake. Etorkinek, hala ere, hizkuntzaren aldetik erronka gehiago gainditu behar dituzte, eta programa honen helburua etorkinei laguntzea da, hain zuzen ere: lan merkatuan aukera gehiago izateko, euskara eskatzen eta baloratzen den lan arloetan aritzeko beharrezkoa den hizkuntza oinarri bat izateko, profesionalki aurrera egiteko eta hemen bizitzeko lehentasunak betetzeko aukerak izateko.

Laburbilduz, proiektu horren helburu orokorra da lan munduan euskararen erabilera sustatzea.

Ildo horretatik, Banaiz Bagara Elkartea Tolosako Udalari diru laguntza eskatu zion proiektu hori aurrera eramateko. Eskariarekin batera programari buruzko txostena eta aurrekontua aurkeztu zituen.

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak 2017ko ekainaren 30ean egindako bileran Euskara Plus proiektua eta aurrekontua aztertu zituen, eta kontuan izanik bere helburua bat datorrela Tolosa Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planarekin ontzat jo zituen.

Bestetik, "Euskara Plus" proiektua dela-eta, Tolosako Udalak 2017ko udal aurrekontuetan, 0900.481.01.335.10 partidaren, "Etorkinak lan munduan" zioarekin, 3.000 euro dauzka izendatuta Banaiz Bagara Elkartearantz.

Hori dela eta, diru laguntza bideratzeko hitzarmena gauzatu behar da Tolosako Udalaren eta Banaiz Bagara elkartearen artean.

Hortaz, kontuan harturik, batetik, adierazitakoa eta, bestetik udal txosten teknikoak, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- "Euskara Plus" proiektua aurrera eramateko 3.000 euroko diru laguntza onartzea Banaiz Bagara Elkartearantz, Tolosako Udalaren 2017ko udal aurrekontuetako dagokion partidaren kargura.

**BIGARRENA.**- Onartzea diru laguntza bideratzeko aurkeztutako hitzarmena.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Banaiz Bagara Elkarteari, Kontuhartzaitzari eta Euskara Zerbitzuari.

### **4.- Iurreamendi Egoitzak aurkeztutako 9/2017 zka.duen faktura zerrenda.**

Iurreamendi egoitzak **9/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **274.035,21** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- Iurreamendi Egoitzak aurkeztutako **9/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta Iurreamendi Egoitzari.

### **5.- "Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua"n jasotako obren 3. ziurtagiria (V-17/0529 eta V-17/0530 faktura).**

Tolosako Udalak Altuna y uria, S.A., enpresari esleitu zion "Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua"-n jasotako obren kontratua, 847.672,87€ (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0371.....	14.251,27€
1. ziurtagiria (BEZik gabe) .....	V-17/0372.....	4.516,93€
2. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0441.....	33.207,58€
2. ziurtagiria (BEZik gabe) .....	V-17/0440.....	9.975,11€

GUZTIRA..... 61.950,89€

Orain 3. ziurtagiria aurkeztu da, honakoa da:

3. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0529.....	58.215,24€
3. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0530 .....	8.887,46€

GUZTIRA..... 67.102,70€

Ziurtagiria honek obrako zuzendaritzaren eta udal arkitektoaren oniritzia jaso duenez, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Onartzea "Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua"-n jasotako obren 3. ziurtagiria. Zenbatekoa 67.102,70€-koa.

**BIGARRENA.**- Sinatutako hitzarmenaren arabera, ziurtagiri honi dagozkion 8.887,46€-tako ordainketa eskatzea Gipuzkoa Urak enpresari.

**HIRUGARRENA.**- Fakturen ordainketa egitea.

**LAUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Altuna y Uria, S.A. enpresari, Gipuzkoako Urak enpresari eta Kontuhartailtzari.

### **6.- 40/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzailtzak **40/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **253.992,17€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- **40/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**